

ikasmina:

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari  
buruzko dokumentuak

# Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza eta biztanleria aktiboa Gipuzkoan

52. dokumentua

2017ko maiatza

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune  
eta Lurralde Orekako Departamentua  
Departamento de Promoción Económica,  
Medio Rural y Equilibrio Territorial

## AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Ikasten duten 55 urte eta gehiagoko pertsonak.....</b>	<b>4</b>
2.1. Ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonak.....	4
2.2. Etengabe ikastea .....	6
2.3. 55 urteko eta gehiagoko pertsonak nola ikasten duten beren burua ikaskuntzako ibilbideari dagokionez .....	7
<b>3. Zer eta zergatik ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonak .....</b>	<b>9</b>
3.1. Zer ikaskuntza-jarduera egiten dituzte 55 urte baino gehiagoko pertsonak? .....	9
3.2. Egindako ikaskuntzaren ezaugarriak.....	10
3.3. Ikasteko arrazoiak eta ikasten jarraitzeko aurreikuspenak .....	12
3.4. Ez ikasteko arrazoiak .....	14
<b>4. 55 urteko eta gehiagoko pertsonak ikasten duen taldeari egiten dioten ekarpena .....</b>	<b>16</b>
4.1. Ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonak eta generoa ....	16
4.2. 55 urteko eta gehiagoko pertsonak ikasten duen taldeari egiten dioten ekarpena .....	18
4.3. Ikaskuntzak pertsonen bizitzan duen garrantzia .....	19

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak pertsonen aberastasun eta ongizate iraunkorra sortzea bermatzen duen garapen-ereduaren alde egiten du. Testuinguru honetan, oso garrantzitsua da pertsonak gaituko dituzten ikaskuntza-dinamiken garapena eredu horrekin koherentea izatea eta pertsonen, erakundeen eta lurraldea/gizartearen arteko konpromisoa sustatzea.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuaren ustez, pertsonen ikaskuntza da ardatz nagusia Gipuzkoako gizartearen aurrerabidean, pertsonen talentuaren garapenean eta herritartasun aktibo eta parte-hartzailean.

Bizitza osoko ikaskuntzak eguneroko bizitzan pertsonak egiten dituzten jarduera guztiak biltzen ditu. Jarduera horiek bizitzako alor guztietan ezagutzak, jarrerak eta kualifikazioak hobetzera zuzenduta daude: alor pertsonalean, zibikoan, sozialean edo profesionalean. Ondorioz, bizitza osoko ikaskuntzak erakundeetan talentua mantentzearen eta jakin-minari eta ezagutzari pertsonen bizitzako atal eta une bakoitza zabaltzearen alde egiten du.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du; hori urteko kontsulta batean oinarrituta dago (urteko lehen hiruhilekoa). Eta dokumentu honek, zehazki, 55 urte baino gehiagoko pertsonak egindako ikaskuntzari dagozkion emaitzak aztertzen ditu, herritartasun aktiboaren eta ezagutzaren lorpenaren adierazle garrantzitsua baita pertsonen bizitzako ibilbidean aurrera egiten duen heinean.


## 2. Ikasten duten 55 urte eta gehiagoko pertsonak

### 2.1. Ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonak

#### Gipuzkoako 55 urteko eta gehiagoko bost pertsonatik batek ikasten du

Gipuzkoako pertsona helduei egindako bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzeari buruzko azken inkestako emaitzekin bat etorritik, 25 eta 74 urte arteko pertsonen % 40,7k ikasi egiten du<sup>1</sup>, eta 2016ko urtearekiko ez da aldaketa aipagarriarik izan (% +0,6). 55 urte eta gehiagoko pertsonen artean, ikaskuntza-tasak % 21,2ra arte egin du behera, baina % 5 egin du gora azken urtean.

#### 1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, orotara eta 55 urte baino gehiagokoak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


<sup>1</sup> Bizitza osoko ikaskuntzak biltzen ditu hezkuntza titulu ofiziala (ikaskuntza formala) lortzera bideratutako ikasketa-jarduerak eta modu antolatuan eta iraunkorrean egindakoak, baina titulu ofizialik lortzera bideratuta ez daudenak (ikaskuntza ez-formala).

### 55 urte baino gehiagokoetan, emakumeek gizonek baino parte-hartze handiagoa dute

Generoaren arabera dauden aldeei erreparaturaz, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, parte-hartzea zertxobait altuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Zehazki, 55 urteko eta gehiagoko emakumeen % 22k adierazi du azken hamabi hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu duela; tasa horrek % 20,4ra arte egin du behera gizonen artean.

Aipatu behar da emakumeen parte-hartzeak igoera nabarmena izan duela 2016ko urtearekin alderatuta; izan ere, % 13,8tik 2017an 22,0ra pasatu da (ehuneko +8,2 puntu); ondorioz, gizonen tasaren aurrerapena 1,9 puntukoa izan da.

#### 2. grafikoa 55 urte baino gehiagoko ikasten duten pertsonak, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.


## 2.2. Etengabe ikastea

### 55 urteko eta gehiagoko hamar pertsonatik batek adierazi du ikasi duela azken 4 asteetan

Gipuzkoako biztanleria helduaren multzorako aintzat hartutakoaren ildotik, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, ikaskuntzan parte hartzeko tasak behera egin du azterketa kontsultaren aurreko lau asteetara mugatzen denean (etengabeko ikaskuntza izenekoa).

2017an, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 10,6k adierazi du ikaskuntzako jardueraren batean parte hartu duela inkesta egin aurreko lau asteetan, 2016ko tasa baino hiru puntu gehiagoko datuarekin. Gipuzkoako biztanleria helduaren multzoaren kasuan, % 18,9k adierazi du 2017an etengabeko ikaskuntzako jarduerak egin zituela; azken urtean hiru puntu egin dute aurrera.

### 3. grafikoa Ikasten duten pertsonak, orotara eta 55 urte baino gehiagokoak (azken 4 asteak)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

## 2.3. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen nola ikusten duten beren burua ikaskuntzako ibilbideari dagokionez

### 55 urteko eta gehiagoko ia lau pertsonatik batek hartzen du parte ikaskuntzan urtero edo ia urtero

55 urteko eta gehiagoko pertsonen etengabeko ikaskuntzako jardueretan ohiko parte-hartze tasak 5,6 puntu egin du gora azken urtean; 2016an % 17,8koa izan zen eta 2017an % 23,4koa.

“Urte batzuetan” ikasi izanaren aukera barne hartzen baldin bada, nolabaiteko maiztasunarekin ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoa % 51,6 izatera pasatu da. Ondorioz, esan daiteke biztanleriaren talde honen erdiak ez duela inoiz (% 22,1) edo ia inoiz (% 26,3) parte hartzen ikaskuntza-jardueretan.

**1. taula 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikaskuntzaren ibilbidea**

	%	
	2016	2017
<b>Ikasten duten pertsonak</b>		
Urtero edo ia urtero hartzen du parte ikaskuntzako jardueretan	17,8	23,4
Zenbait urteetan hartzen du parte ikaskuntzako jardueretan	32,3	28,2
Oso gutxitan edo ia inoiz hartzen du parte ikaskuntzan	25,4	22,1
Ez du inoiz parte hartzen ikaskuntzako jardueretan	24,4	26,3

*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.*

Kontuan izan beharreko beste datu bat honako hau da: azken urtean ikasi dutela adierazi duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 82,5ek ez duela aldatu ikaskuntzaren intentsitatea (% 82,5). % 10ek adierazi du aurreko urtean baino gehiago ikasi duela eta gainerako % 7,5en ustez, ikaskuntza txikiagoa izan da. Ehuneko horiek antzekoak dira Gipuzkoako biztanleria helduaren artean (% 76,2, % 13,0 eta % 10,8, hurrenez hurren).

**2. taula Biztanleria orokorraren eta 55 urteko eta gehiagoko biztanleriaren ikaskuntzaren bilakaera, 2017**

% población que ha aprendido en el último año

	<b>Biztanleria guztira</b>	<b>55 urte eta gehiagoko biztanleria</b>
Aurreko urtekoa baino altuago	13,0	10,0
Aurreko urtekoaren berdina	76,2	82,5
Aurreko urtekoa baino baxuagoa	10,8	7,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.





# 3. Zer eta zergatik ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonak

## 3.1. Zer ikaskuntza-jarduera egiten dituzte 55 urte baino gehiagoko pertsonak?

Ikaskuntza ez formala nagusitzen da eta biztanleria helduari dagokion arraila nabarmen murriztu da

Adierazi den moduan, 55 urteko eta gehiagoko biztanleriaren arteko ikaskuntza-tasa 2016an % 16,2koa izatetik 2017an % 21,2koa izatera pasatu da. Baina, zer ikaskuntza mota egin du aipatutako taldeak?

**3. taula** Ikasten duten pertsonak, orotara eta 55 urte baino gehiagokoak, ikaskuntza motaren arabera

	2016	2017
<b>Ikasten duten pertsonak</b>		
Ikaskuntza formala	8,2	9,2
Ikaskuntza ez formala	35,2	35,3
<b>Ikasten duten pertsonak, +55 urte</b>		
Ikaskuntza formala	1,0	1,0
Ikaskuntza ez formala	15,8	20,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Talde honetan, biztanleria helduaren artean baino gehiago nagusitzen da ikaskuntza ez formaleko jarduerak egitea. Hain zuzen ere, ikaskuntza formaleko jardueretan

parte hartzea (titulu ofizial bat lortzera bideratuta) testigantzakoa da eta % 1,0ean mantentzen da.

Ikaskuntza ez formaleko jardueretan parte hartzeko tasa, 2016an % 15,8koa izatetik, 2017an % 20,5ekoa izatera pasatu da 55 urteko eta gehiagoko biztanleriaren artean. Aldiz, 25 eta 74 urte arteko biztanleria helduaren kasuan, ehunekoak mantendu eginda (% 35,3). Beraz, bi taldeen arteko arrailak 4,6 puntu egin du behera.

### 3.2. Egindako ikaskuntzaren ezaugarriak

**Urtean ikastaro batean parte hartzea eta ikastaro hori doakoa izatea da ohikoena 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean.**

Ikaskuntzan parte hartzen duen 55 urte eta gehiagoko biztanleriaren erdiak baino gehiagok urtean ikastaro bat egiten du (% 57,3). Ikastaro kopurua bi urtetik hiru urtera ugaritzen baldin bada, ehunekoak nabarmen egiten du behera (% 33,1) eta kopurua are gehiago murrizten da baldintza urtean hiru ikastarotara baino gehiagotara mugatzen baldin bada (% 9,7). Horrekin guztiarekin, aldeko bilakaera nabari da; izan ere, 2016an hauek izan ziren ehunekoak: % 70,1, % 23,7 eta % 6,2, hurrenez hurren.

#### 4. taula 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egindako ikaskuntzaren ezaugarriak

	2016	2017
<b>Ikastaro kopurua</b>		
Bat	70,1	57,3
Bi - hiru	23,7	33,1
Hiru baino gehiago	6,2	9,7
<b>Finantzaketa (ikaskuntza nork ordaindu du)</b>		
Parte hartzen duten pertsonak	35,4	28,2
Enpresak ordaindu du	15,6	21,0
Doakoa da	49,0	50,8

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

55 urteko eta gehiagoko pertsonen azken urtean egindako prestakuntza-zikloen erdiak doakoak izan dira. Talde honen artean laneko jarduerarik eza garrantzitsua


denean, nabarmendu behar da prestakuntzaren %21 enpresak finantzatu izana. Norbere finantzazioa % 28,2koa da.

### 55 urteko eta gehiagoko hamar pertsonatik sei ikasteagatik ordaintzeko prest daude

Gipuzkoako biztanleria helduaren artean, ikaskuntza pertsonalki finantzatzeko gero eta joera handiagoa nabari da, edo ikaskuntza egiteko ordaintzeko prest egoteko joera. Zehazki, Gipuzkoako biztanleria helduaren % 65,0 prestakuntzatik eratorritako gastu guztiak (% 33,9) edo gastuen zati bat (% 31,1) ordaintzeko prest egongo litzateke; ehuneko hori duela urtebete lortutakoa baino 5,9 puntu altuagoa da (% 59,1).

55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, ikasteagatik ordaintzeko prestutasuna izatea maila baxuagoan gertatzen da; izan ere, ikasketak guztiz (% 29,0) edo zati bat (% 28,2) ordainduko lituzkeela adierazten duen ehunekoa % 57,3ra arte murrizten da; gainera, 2016ko datuekin alderatuta, 5,2 puntu egin du atzera.

#### 4. grafikoa Ikasteagatik ordaintzeko prestutasuna. Biztanleria oro har eta 55 urte eta gehiagoko pertsonak




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

### 3.3. Ikasteko arrazoiak eta ikasten jarraitzeko aurreikuspenak

**55 urte eta gehiagoko pertsonen % 54,4k arrazoi profesionalengatik ikasten du, eta gizonen artean, ehunekoa % 60ra arte igotzen da**

Azterketa egin den adinaren segmentua neurri batean lan-merkatutik kanpo dauden pertsonen osatzen duten arren, azken urtean ikasi dutela adierazi duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen erdiek baino gehiagok arrazoi profesionalak adierazi dituzte (% 54,4). Gainerako % 45,6k arrazoi pertsonalak aipatu ditu eta banaketa hori azken urtean ez da aldatu (% 54,9 eta % 45,1 2016an, hurrenez hurren).

**5. grafikoa 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikasteko dituzten arrazoiak**



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

55 urteko eta gehiagoko biztanleriaren artean ikasteko arrazoiak desberdinak dira gizonen eta emakumeen artean. Gizonen artean motibazio profesionala nagusitzen da, baina hori aipatzen dutenen tasak zertxobait behera egin du azken urtean (2016an % 63,3 izatetik, 2017an % 60,0 izatera).

Aldiz, emakumeen artean, motibazio profesionala eta pertsonala oso orekatuta daude (% 48,5 eta % 51,5); horren arrazoia argia da: motibazio profesionalak, 2016ko urtearekin alderatuta, % 5,6 egin du aurrera.

**5. taula 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikasteko dituzten arrazoiak, sexuaren arabera**


	2016	2017
<b>Arrazoi profesionalak</b>		
Gizonezkoak	63,3	60,0
Emakumezkoak	42,9	48,5
<b>Arrazoi pertsonalak</b>		
Gizonezkoak	36,7	40,0
Emakumezkoak	57,1	51,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

**55 urteko eta gehiagoko ia hiru pertsona heldutatik batek datorren urtean ikasteko asmoa du**

Gipuzkoako hamar pertsona heldutatik lauk (% 43,1) prestakuntza- edo ikaskuntza-jarduerak egiteko asmoa du datorren urtean; ehunekoak 5,8 puntu egin du gora 2016ko urtearekin alderatuta (% 37,3).

**6. grafikoa Datorren urtean ikasten jarraitzeko asmoa duten pertsonak. Biztanleria guztira, 55 urte eta gehiagoko biztanleak**



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

55 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean, ikasteko aurreikuspena nabarmen txikiagoa da, baina ehunekoak 12,7 puntutan egin du gora; hain zuzen ere, 2016an % 16,5 izatetik, 2017an % 29,2 izatera pasatu da. Gainera, ez dira aldeak nabari gizonen (% 29,0) eta emakumeen (% 29,3) ikasteko aurreikuspenetan.

### 3.4. Ez ikasteko arrazoiak

#### Familiako erantzukizunak eta motibazio-gabezia dira 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikaskuntzako oztopoak

Atxikitako taulak Gipuzkoako pertsona helduek oro har eta 55 urte baino gehiagokoek ikaskuntzan parte hartzeko dituzten oztopoak biltzen ditu. 2017an egindako inkesten emaitzek agerian jartzen dute familiako erantzukizunak daudela azken urtean ez ikasi izateko oztopoen rankingeko buruan, bai biztanleria helduaren kasuan (% 42,6), bai adinez aurreratuagoen artean (% 42,9).

55 urte eta gehiagoko taldean, oztopo hori denboraren zati handi bat familiartekoen zaintzari eskaintzarekin egon daiteke erlazionatuta, bai gurasoak izan, bai ilobak izan, edo biak.

Horrez gain, oso oztopo garrantzitsua da motibazio gabezia ere; hori adierazi dute adin-tarte honetako pertsonen % 40,1ek eta biztanleria helduaren % 31,7k.

#### 6. taula Ikaskuntzan ez parte hartzeko arrazoiak, sexuaren arabera 2017

Azken urtean zehar ikasi ez duten pertsonen %

	Guztira	55 urte eta gehiago
<b>Ez dut motibaziorik</b>	31,7	40,1
<b>Prestakuntza ez da laneko nire ordutegiarekin bateragarria</b>	27,4	9,3
<b>Familiako ardurek eragozten didate</b>	42,6	42,9
<b>Ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste dut</b>	12,3	23,1
<b>Ez ditudala behar uste sut, nire ezagutzak nahikoak dira</b>	17,7	23,9
<b>Kostua handia da, ezin dut ordaindu</b>	8,8	6,1

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua

Aipamen mailaren arabera, bigarren oztopo taldeak biltzen du 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ez dutela ikasi ez dutelako beharrezkoa ikusten (% 23,9) edo ikasteko zaharregiak direla uste dutelako (% 23,1); ehuneko horiek, Gipuzkoako biztanleria helduaren artean, % 17,7 eta % 12,3ko datuak biltzen dituzte hurrenez hurren.

Laneko ordutegiarekiko bateraezintasuna aipatu dute 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 9,3k, baina biztanleria helduaren artean (25-74 urte), hori aipatzen dutenen ehunekoa hirukoiztu egin da (% 27,4). Azkenik, prestakuntzaren kostua oztopo edo traba gisa ikusten dutenen pertsonen ehunekoa ez da oso altua bi taldeetan (% 6,1 eta % 8,8, hurrenez hurren).



# 4. 55 urteko eta gehiagoko pertsonak ikasten duen taldeari egiten dioten ekarpena

## 4.1. Ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonak eta generoa

**Oro har, emakumeek ikaskuntzan gizonezkoek baino parte-hartze indize handiagoa dute**

Gipuzkoako biztanleria helduari egindako azken inkestaren emaitzekin bat etorritik, eta 55 urteko eta gehiagoko emakumeen eta gizonen artean ikaskuntzan parte hartzean dauden aldeetan arreta jarritik, emakumeen artean gizonezkoetan baino ikasteko joera handixeagoa nabari da. Hala:

- Gipuzkoako 55 urteko eta gehiagoko emakumeen % 22,0k adierazi du azken urtean ikaskuntza jardueraren batean parte hartu duela; ehuneko horrek gizonen ehunekoa gainditu du zertxobait (% 20,4).
- Pertsonen etengabeko ikaskuntzari arreta jarritik (inkestaren aurreko lau asteetan egindako ikaskuntza), kasu honetan ere, emakumeek parte-hartze handiagoa erregistratzen dute (% 11,3 eta gizonezkoen kasuan, % 9,9).
- Ikaskuntza ez formala da gizonak emakumeak gainditzen dituzten ikaskuntza mota bakarra: % 19,8 eta % 18,0, hurrenez hurren.



- Azkenik, eta etorkizunean ikasten jarraitzeko aurreikuspenei dagokienez, aldeak nabari dira emakumeek eta gizonek erakutsitako asmoen artean (% 29,3 eta % 29,0, hurrenez hurren).

**7. taula      55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikasten duen taldeari egiten dioten ekarpena ezaugarri sozioekonomikoen arabera**

Ikasi duten 55 urte eta gehiagoko pertsonen %

	<b>55 urte eta gehiagoko pertsonak</b>
<b>Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza (azken hamabi hilabeteak)</b>	<b>21,2</b>
Emakumezkoak	22,0
Gizonezkoak	20,4
<b>Etengabeko ikaskuntza</b>	<b>10,6</b>
Emakumezkoak	11,3
Gizonezkoak	9,9
<b>Ikaskuntza informala</b>	<b>18,9</b>
Emakumezkoak	18,0
Gizonezkoak	19,8
<b>Ikasten jarraitzeko espektatibak</b>	<b>29,2</b>
Emakumezkoak	29,3
Gizonezkoak	29,0

*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua*

## 4.2. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikasten duen taldeari egiten dioten ekarpena

Ikasten duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, azken urtean ikaskuntza-jardueretako parte-hartze tasa berdina da emakumeen eta gizonen artean (% 50,0 bakoitzak). Aldiz, etengabeko ikaskuntzan parte hartzen duen emakume kopurua (azken lau asteak) gizonezkoen kopurua baino zertxobait altuagoa da (% 51,5 eta % 48,5).

Bestalde, ikaskuntza ez formala egiten duen adin-tarte honetako pertsonen artean, gizonezkoen ehunekoa (% 54,2) nabarmen altuagoa da emakumeena baino (% 45,8). Era berean, datorren urtean zehar ikasten jarraitzeko asmoa duten pertsonen artean, gizonezkoen ehuneko altuagoa nabari da (% 51,6 eta % 48,4).

### 8. taula 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ikasten duen taldeari egiten dioten ekarpena ezaugarri sozioekonomikoen arabera

Ikasi duten 55 urte eta gehiagoko pertsonen %

	55 urte eta gehiagoko pertsonak
<b>Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza (azken hamabi hilabeteak)</b>	
Emakumezkoak	50,0
Gizonezkoak	50,0
<b>Etengabeko ikaskuntza</b>	
Emakumezkoak	51,5
Gizonezkoak	48,5
<b>Ikaskuntza informala</b>	
Emakumezkoak	45,8
Gizonezkoak	54,2
<b>Ikasten jarraitzeko espektatibak</b>	
Emakumezkoak	48,4
Gizonezkoak	51,6

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua

### 4.3. Ikaskuntzak pertsonen bizitzan duen garrantzia

Ikaskuntzak arlo pertsonal eta sozial desberdinetarako zenbaterainoko garrantzia duen galdetzean, Gipuzkoan bizi den 55 urteko eta gehiagoko biztanleriak honako hau uste du:

- % 100ek uste du pertsona guztiek ikasi egin beharko luketela; gainera, uste dute pertsonen ikaskuntza garrantzitsua dela Gipuzkoako garapen orokorrerako.
- % 93,3k uste du egungo egoera ekonomikoaren aurrean, pertsona guztiek ikasi egin beharko luketela lan-merkatuko beharretara hobeto egokitzeko. Eta % 92,3k uste du ikasteak enplegua topatzen laguntzen duela.
- Bestalde, % 76,6k adierazi du, oro har, pertsonak ikasteko motibatuta daudela.
- Azkenik, % 68,9k uste du gutxieneko prestakuntza maila duten pertsonak direla ikasten jarraitzen dutenak eta % 63,8k uste du gizarteak eta enpresek ondo aitortua dutela ikaskuntza.

#### 9. taula 55 urte eta gehiagoko pertsonentzako ikaskuntzak duen garrantzia, 2017

guztiz edo partzialki ados dauden 55 urte eta gehiagoko pertsonen %

	Guztira	55 urte eta gehiagoko pertsonak
<b>Pertsona guztiak ikasi behar dute</b>	99,6	100,0
<b>Pertsonak, orokorrean, ikasteko motibazioa dute</b>	71,3	76,6
<b>Ikasteak lana bilatzen laguntzen du</b>	89,9	92,3
<b>Formakuntza duten pertsonak dira ikasten dutenak</b>	54,0	68,9
<b>Egoera ekonomiko honetan, pertsona guztiak gehiago ikasi behar dute</b>	89,4	93,3
<b>Ikaskuntza nahiko aintzatetsia dago enpresen eta gizartearen aldetik</b>	57,3	63,8
<b>Ikaskuntza garrantzitsua da Gipuzkoaren garapenerako</b>	99,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua

**Metodologia: ikaskuntza-definizioen aplikazioa, neurketaren jarraikortasuna eta nazioarteko alderaketa bermatzen dituztenak**

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren ezagutza urteko inkesta bat egitean oinarritzen da. Definizioak<sup>2</sup> eta edukiak mantentzeak neurriaren jarraikortasuna bermatzen du, eta batez ere, nazioarteko alderagarritasuna. Zehazki, ikerketa-lerro honetan ikaskuntzako hiru kategoria handi hartzen dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: heziketa- eta prestakuntza-zentroetan garatzen da, eta diplomak eta egiaztatutako prestakuntza lortzen dira.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen da, baina ez da titulu ofizialik eskuratzen. Ikaskuntza mota hori erakundeetan eta erakundeetatik kanpo eskura daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, marrazketako eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko helburuarekin gauzatutako jarduera gisa definitzen da, baina nor bere kabuz egiten du, erakundeetara jo gabe. Ikaskuntza ez-formalaren kasuan baino antolaketa eta egituraketa gutxiagorekin eskuratzen dira ezagutzak; esaterako, familian, lanean edo norberaren eguneroko bizitzan gertatzen diren ikaskuntza-jarduerak dira.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa<sup>3</sup> pertsonak ikaskuntza formaleko eta ez formaleko jardueretan parte hartzetik abiatuta osatzen da.

---

<sup>2</sup> Eurostaten metodologia.

<sup>3</sup> Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dugu sartu kontaktetan, oso subjektiboa (norbere kabuz ikasten dena) eta herrialde batetik bestera oso irregularra baita. Iturria: Eurostat.

Titulua:	Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza eta biztanleria aktiboa Gipuzkoan 52. dokumentua, 2017ko maiatza
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.
Ohar teknikoa	Laginareen diseinuaren eguneratzea; aldagai demografikoen, enpleguaren eta ikasketa mailaren doiketa. Lotura urtea 2016 eta aurreko urteetakoekin zuzenean alderagarriak ez diren emaitzak.